

Dona, dona, katona.....

Xaguxar

Carmen Mendizábal Etxeberria zenari.
Gure Karmeleri.

Usoekin batera joan zinen udazkena hasiberria zela, lur edo zeru epelagoen bila. Usoekin batera joan zinen gu tristaturik utzita.

Seguruenik ez zenuen goraipamenik nahi izango, bizimodu apala eta isila aukeratu baitzenen, baina, herriko jaiak lehertzeaz dauden une honetan zure oroimena ekarri nahi dut etxeokoa eta ingurukoak goxatzeko eta ezagutu ez zintuztenek zure nortasunaren eta ekarpenen berri izan dezaten.

Compromiso, konpromisoa, engagement. Horrelaxe definitzen du hiztegiak: zerbaitetarako hitza ematea edo eginkizuna hartzea. Hauxe izan zen zure bizitzako ezaugarri bat, ez zenuen gauzen ondortik pasa izan nahi, arazoak ahaztuz edo alboratuz.

Sinesten zenuena defendatu zenuen zure bizitza osoa dedikatuz.

Agustina. Egun batean sumatu omen zenuen munduak ez zintuela asetzen, beste zerbait nahi zenuela bizitzari zentzua emateko. Beste zerbait hori moja agustina sartzea zen, zure bizitza Jaungoikoari eskaintzea. Badakizu zein zaila egiten zitzaigun askori hori guztia ulertzea. Dena den, zu horren pozik eta seguru ikustean errespetua nagusitzen zen gure artean.

Rita. Santa Rita. Maiatzaren 22an. Zenbat bider aipatzen zenuen herriak Santa Ritaren irudia maite zuela, bazenituztela beste irudi batzuk, balore handikoak, baina hura zela herriak maite zuen. Santa Rita hori eta bere bederatziruena



Carmen Mendizábal eta haurrak Miel Otxin erretzen 1979-ko Inauterietan.

Errenteriarekin batzen zintuen zilbor-hestearen antzeko zerbait zela nabaritzen nuen.

Musika. Musika aukeratu behar da zu definitzeko. Musika. Alaitasuna. Ez garai bateko mortifikazio ilun eta zentzugabeak. Pianoan eta organoan kantari zaitut buruan, gure txikiez inguratutik: "Han urrun etxe poxpola hola, hola. Tximinitik gora, kea dariola, hola, hola. Gaintxoan arbola, zelai erdian"... "Honek, ta honek, ta honek bart parranda egin zuten..." "Dona, dona, katona..."

Euskara. Ez dezagun ahaztu 1976.ean Ikastolari ireki zenizkiotela ateak eta buru-belarri saiatu zinetela gure modu pedagogiko berriak eta gure helburuak ulertzen. Eta zu erabaki horren arima izan zinen. Euskara izugarri maite zenuen eta zoragarri erabiltzen. Andereñoen andereñotzat izan zintugun, izan ere, makina bat gauza ikasi genuen zure ezpainetatik. Ilunabarrean, haurrak utzita, ama batzuk hartzen zenituen euskara irakasteko. Eta gero, otoitzak eta komentuko ardurak. Nekaezina zinen.

Nortasuna. Nortasun handiko emakumea zinen. Komentuan lana handia egin zenuena, ahizpen egoera hobetzeko. Erromaraino joan behar izan zenuten eskola eman ahal izateko, Kolegioa irekitzeko. Andre helduak zinetela Irakasle titulua atera zenuten. Ez zaizue zuei azaldu behar etengabeko formazioa zer den, ekintzaile izatea zertan datzan edota planteamenduak berritu egin behar izatea. Madre Carmen, Madre Coraje esaten nizunik.

Carmen, gure Karmele, jakin ezazu, zauden tokian zaudela, bihotzean zaitugula.

Jakin ezazu, "Dona, dona, katona. Kaka zarra mantzona. Kukulunbera, kulunbera, atsua goitik bera. Nungo atsua? Zarrapateko atsua. Eskaileratik erorita, autsi-in du kaskua" kantatzen dugun bakoitzean zu zaitugula gure artean.

Mila esker bihotzetik.

